

AURREKONTUAREN MEMORIA EKITALDIA: 2016

1- DATU OROKORRAK

ERREGISTRO-ZENBAKIA:
IZENA: EKAIN FUNDAZIOA
KALEA: FORU KALEA. UDALETXEA
POSTA-KODEA: 20.740
UDALERRIA: ZESTOA
LURRALDE HISTORIKOA: GIPUZKOA
IFK: G-20854428
IKUSKAPEN-DATA: 2015/12/21
ATALA:
TEL.: 943 577 655

2- HARREMANETARAKO PERTSONA

IZENA: María José
ABIZENAK: Telleria Etxeberria (Ekain Fundazioko Idazkaria)

3- GUZTIONTZAKO INTERESGARRIA DEN HELBURU NAGUSIA

Ondare Historikoa aztertu, hedatu eta ezagutzea, eta zehatzago esanda, Zestoako EKAINgo erreplikaren (Ekainberri) eta Lili Jauregiaren, gestioa, mantentze-lana eta promozioa gauzatzea.

4- PATRONATUKO KIDEAK 2016KO EKITALDIRAKO

Gipuzkoako Foru Aldundia, horren ordezkariak DENIS ITXASO GONZÁLEZ Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru diputatua eta MARÍA JOSÉ TELLERIA ETXEBERRIA Kultura Zuzendari Nagusia (Idazkaria) izango dira.

Eusko Jaurlaritza, horren izenean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburua CRISTINA URIARTE TOLEDO (Lehendakariordea) eta IMANOL AGOTE ALBERRO JN. Kultura ondareko zuzendaria

Zestoako Udala, horren ordezkaria JOSÉ FRANCISCO MENDIZABAL IRIGOYEN JN. Zestoako Alkatea izango da.

5- ERAKUNDE PUBLIKOEN PATRONATUAN DITUZTEN PARTAIDETZA GEHIENGODUNAK ETA PARTAIDETZEN EHUNEKOA

<u>ERAKUNDEA</u>	<u>PARTAIDETZA</u>
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	% 33,34
EUSKO JAURLARITZA	% 33,33
ZESTOAKO UDALA	% 33,33

6- ORDAINSARI OROKORRAK PATRONATUKO KIDEENGATIK

<u>KONTZEPTUA</u>	<u>Euro</u>
Soldatak eta lansariak	0,00
Dietak	0,00
Beste kontzeptu batzuk	0,00
Guztira	0,00

7.- ESKUORDETZEAK ETA AHALORDEAK

DENIS ITXASO GONZÁLEZ Jaunari, CRISTINA URIARTE TOLEDO Andreari eta MARÍA JOSÉ TELLERIA ETXEBERRIA Andreari ahalmena ematea erabaki da, HORIETAKO BI EDOZEINEK ELKARREN ARTEAN Elkartearen ondorengo ahalordetze horiek egin ditzaten:

“b.- Baliabide ekonomiko eta finantzario guztiak administratzea, horien jatorria edozein delarik ere” (Estatutuetako 11.2 b artikulua).

“h.- Fundazioak dituen helburuak hobeto betetzeko beharrezkoak diren era guztietako ekitaldiak eta kontratuak gauzatu eta onestea, horien izaera zibila, merkataritzakoa, lan alorrekoa, administraziokoa edo beste edozein eratakoa bada ere” (Estatutuetako 11.2 h artikulua).

Ahalmen horiek mugatutzat ulertuko dira, ez baita inolaz ere eskuordetzerik izango kontuak eta aurrekontua onestea, ohiko kudeaketa gainditzen duten ekintzak edo Protektoratuaren baimena behar dutenak eta Fundatzaileak edo Estatutuetan espresuki debekatutakoak eta modu berean mugatuta egongo dira legean ezarrita dauden suposizio horietara guztietara.

8- 2016AN EGINGO DIREN JARDUEREN LABURPENA

2016rako aurreikusi diren jarduerak honakoak dira:

- **Ekainberriko Jarduerarekin aurrera egitea.**

2008an Zestoako Ekain Haitzuloko Erreplika ireki zen jendearentzat. Ekain Fundazioak erreplikaren jarduerarekin jarraituko du 2016 urtean ere.

- **Ekainberriko ekipoak berritzen jarraitzea.**

Ekainberriko erakusgelan matxuratuta dauden ekipoak berritzen jarraituko dira

- **Lili Jauregiko Jarduerarekin aurrera egitea.**

2013an Lili Jauregia ireki zen jendearentzat eta jarduerarekin jarraituko du 2016 urtean ere.

- **Lili Jauregia egokitzen jarraitzea**

2016 urtean zehar Lili Jauregia egokitzen jarraitu behar da, batez ere argiztapen eta bainuak.

Oharra: Memoria horretan behar bezala adieraziko dira ekitaldi ekonomiko horretan gauzatuko diren jarduerak, fundazioaren helburua ezagutzera emateko eta horiek justifikatzeko.

9.-EKITALDI HONETAN GAUZATUKO DIREN MERKATARITZA-JARDUERAK

Jarduera Onuradurak.

Ez da inolako merkataritza-jarduerarik izango.

10.-DAUDEN KREDITU-ERAGIKETAK

<u>Kontzeptua</u>	<u>Aktiboa (Pasiboa) Zenbatekoa 12.31n</u>
Kreditu-entitateekin dauden zorrak	0,00 €
Hartzekodun komertzialak	32.722,80 €
Administrazio Publikoak	0,00 €
Onuradunak-hartzekodunak	0,00 €
Beste batzuk	0,00 €
Guztira	<u>32.722,80 €</u>

Hartzekodun komertzialei dagokienez ordaindu gabe geratuko dira hartzekodun komertzialen honako fakturak:

- Ekainberri Eraikinaren eta Lili jauregiaren kudeaketa eta ustiapenaren faktura (31.702,77€).
- Administrazio zerbitzuaren faktura (1.020,03 €)

11- FUNTZIONAMENDU-ERAGIKETAK

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
USTIATZEKO DIRU-LAGUNTZAK	400.000,00
EKITALDIKO EMAITZARA TRASF.DIRU LAGUNTZA	204.458,64
<u>Guztira</u>	<u>604.458,64</u>

12- DIRU-SARRERA PUBLIKOEN, PRIBATUEN ETA FUNDAZIOAREN JARDUERATIK DATOZENEN ARTEKO ALDEA

	<u>Euro</u>
Diru-sarrerak dohaintzengatik, legatuengatik eta herentzia pribatuengatik	0,00 €
Diru-sarrerak diru-laguntza publikoengatik (Ustiapenerakoak eta kapitalarenak)	420.000,00 €
Funtseko jardueratik sortutako diru-sarrerak	0,00 €
<u>Guztira</u>	<u>420.000,00 €</u>

Xehetasuna: Ekain Fundazioak ondorengo zenbatekoak jasoko dituela aurreikusi da:

Gipuzkoako Foru Aldunditik:

- 400.000,00 € ustiapenerako diru-laguntza moduan.

- 20.000,00 € Kapitalerako diru-laguntza moduan.

13- EKITALDIKO GUZTIZKO GASTUEN XEHETASUNA

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
Diru-laguntzak	381.600,00 €
Ustiapenerako beste gastu batzuk	18.400,00 €
Obrak	20.000,00 €
Beste gastu batzuk (Amortizazioak)	204.458,64 €
<u>Guztira</u>	<u>624.458,64 €</u>

Xehetasuna: Ekain Fundazioak ondorengo ataletan honako gastuak izango dituela aurreikusi da:

- Diru-laguntzak Arazi Aranzadi EAB enpresari ordaindu beharreko zenbatekoak, haitzuloa ustiatzeko lanarekin jarraitzeko, jarduera hori defizita sortzen duena dela iruditzen zaigulako.
- Ustiapeneko beste gastu batzuk: Fundazioaren administrazioarako eta publizitaterako beharrezkoak diren zenbatekoak.
- Impermeabilización de Ekainberri

14- EKITALDIAN IZANGO DEN BATEZ BESTEKO PERTSONALA

	<u>Zenbat</u>
Soldatapeko pertsonala	0,00
Bere borondatez ari den pertsonala	0,00
Guztira	0,00

15- EKITALDI AMAIERAN FUNDAZIOAK IZANGO DUEN HORNIDURA 18.000,00 €

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	6.000,00 €
EUSKO JAURLARITZA	6.000,00 €
ZESTOAKO UDALA	6.000,00 €

16- 2016EKO EKITALDIAREN EMAITZA EKONOMIKOA 0,00 €

Oharra: Ondorengo emaitza espero da honako arrazoiengatik:

- Fundazioak ez du diru-sarrerarik sortuko duen inolako jarduerarik gauzatuko.
- Gastu arruntetarako jasoko diren diru-sarrerak fakturaren aurka jasoko dira, hori horrela izanik iruditzen zaigu diru-sarrerak eta gastuak parekoak izango direla.